ERRENTERIA
UDALA
Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2022IGOB0011
**Gaia/**Asunto**:** 2022/07/05 Tokiko Gobernu Batzordea/Junta de Gobierno Local de fecha 05/07/2022

**Tokiko Gobernu Batzarra 2022ko uztailaren 05ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2022ko uztailaren 05ako 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite Gartzia Ontiveros

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, José Manuel Ferradás Freijo *(Elkarrekin Errenteria)*.

**1. 2022ko ekainaren 21eko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea. (2022IGOB0010)**

Oharrik gabe onartu da.

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 05 de julio de 2022.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 05 de julio de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejalas y Concejales:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite Gartzia Ontiveros

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

No asiste excusando su inasistencia, José Manuel Ferradás Freijo *(Elkarrekin Errenteria)*.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 21 de junio de 2022. (2022IGOB0010)**

Se aprueba sin observación alguna.

ESKU2317015c-1795-43cc-8264-febd6765d8a9

**2. SAGARDIBURU KALEA 71, (SECTOR 61) eraikinean eraikuntza berriaren lehen erabilpen baimena. (2018HOHA0011)**

Libertad RODRIGUEZ IGLESIAS anderea, ohiko batzarrean Tokiko Gobernuko Batzordean, 2018ko irailaren 4an eskuratu zuen SAGARDIBURU kalea 71zenbakiko, (61SEKTORE)an helbidean dagoen eraikutza berria egokitzeko obra-litzentzia.

2019ko apirilaren 29an, Libertad RODRIGUEZ IGLESIAS anderea eskatu du Iván ASTIGARRAGA IGLESIAS jaunari eskualdatzea SAGARDIBURU kalea 71ean (61 SEKTORean) helbideko eraikuntza berria egiteko obra-litzentzia.

2019ko maiatzaren 21ean, dekretuaren bidez **BAIMENTZEN** da Iván ASTIGARRAGA IGLESIAS jaunari eskualdatzea SAGARDIBURU kalea 71 (61 SEKTORE)an helbideko eraikuntza berria egiteko obra-litzentzia. Hain zuzen ere, 2018ko irailaren 4an Libertad RODRIGUEZ IGLESIAS andereari emandako lizentzia.

Aipaturiko obrak burutzeko emandako baimenaren 11.3 zenbakiko baldintzaren arabera, eskabidearekin batera, **RICARDO JIMENO DOMINGUEZek, jabe berriak,** 2022ko maiatzaren 6ko 9305 sarrera erregistroa, duela, honako dokumentazio hau aurkeztu da:

1.- Obra Bukaerako Egiaztagiria, Marta Pérez Gabaldón eta Izaskun Recarte Mendiluce arkitektoek sinatua, EHAEOak ikus-onetsia 2022/05/05e/an, hala nola Lander Arregi Arzuaga arkitekto teknikoak sinatua, Gipuzkoako AATEOak ikus-onetsia 2022/04/04an.

2.- Obraren behin betiko likidazioa, teknikari horiek sinatua eta EHAEOak ikus-onetsia 2022)05/05e/an, hala nola Gipuzkoako AATEOak ikus-onetsia 2022/04/04an.

**2. Licencia de primera utilización para edificación nueva en SAGARDIBURU KALEA 71, (SECTOR 61).(2018HOHA0011)**

Con fecha 4 de septiembre de 2018, en sesión ordinaria de la Junta de Gobierno Local, Libertad RODRIGUEZ IGLESIAS obtuvo licencia de obras para la edificación nueva en SAGARDIBURU kalea, nº 71 (SECTOR 61)

Con fecha 29 de abril de 2019, Libertad RODRIGUEZ IGLESIAS, solicita la transmisión de la licencia de obras para edificación nueva en SAGARDIBURU kalea, nº 71 (SECTOR 61), en favor de Iván ASTIGARRAGA IGLESIAS.

A través de decreto de 21 de mayo de 2019, se **CONCEDE** la transmisión de la licencia de obras para edificación de obra nueva en SAGARDIBURU kalea nº 71 (SECTOR 61), concedida el 4 de septiembre de 2018, a Libertad RODRIGUEZ IGLESIAS, a favor de Iván ASTIGARRAGA IGLESIAS.

De acuerdo con el condicionante nº11.3 de la licencia concedida para la realización de las obras referidas, el nuevo propietario, **RICARDO JIMENO DOMINGUEZ**, ha presentado junto con la solicitud, con registro de entrada nº 9305, de 6 de mayo de 2022, la siguiente documentación:

1.- Certificado Final de Obra, suscrito por las arquitectas Marta Pérez Gabaldón y Izaskun Recarte Mendiluce, visado por el C.O.A.V.N el 05/05/2022, así como por el arquitecto técnico Lander Arregi Arzuaga, visado por el C.O.A.A.T. de Gipuzkoa el 04/04/2022.

2.- Liquidación definitiva de la obra, suscrita por los mismos técnicos y con visado del C.O.A.V.N del 05/05/2022, así como del C.O.A.A.T. de Gipuzkoa del 04/04/2022.

ESKU2317015c-1795-43cc-8264-febd6765d8a9

3.- Eraikinaren fatxaden argazkiak.

4.- Obra Bukaerako Dokumentazioa, teknikari horiek idatziak eta EHAEOak ikus-onetsiak 2022/05/05an.

2022ko ekainaren 14an Ramón Ruiz de Mendozak, udal arkitektoak, lehen erabilpen baimenaren aldeko txostena egin du. Aipatutako txostenean, adierazten da Zerga-oinarria **133.779,10 €** direla, eraikuntzei, instalazio ei eta obrei buruzko Zerga ezartzearen ondorioetarako.

Aldi berean, txostenean azpimarratzen da “Eraikuntza eta Etxebizitza Estatistika” inprimakia erantsi beharko dela, behar bezala beterik, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren 4/86 Legeak ezarritakoaren arabera.

Hirigintzako zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Hirigintzako Aholkularu Juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Hirigintzako Delegatuaren proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez, honako hau,

**EBATZI DU**

**LEHENENGOA. Ematea RICARDO JIMENO DOMINGUEZ** jaunari, SAGARDIBURU KALEA 71, (SECTOR 61) eraikinean **eraikuntza berriaren *lehen erabilpen baimena.*** Hori guztia aurkeztutako obra amaierako dokumentazioaren arabera eta azalpen zatian aipatzen dena.

**BIGARRENA. Ordainduko dira** dagozkien udal zergak **133.779,10** eurotako zerga-oinarriaren arabera (aurreko zerga-oinarria 121.668,00

3.- Fotografías de las fachadas del edificio.

4.- Documentación Fin de obra, redactado por los mismos técnicos y con visado del C.O.A.V.N. 05/05/2022.

Con fecha 14 de junio de 2022, El Arquitecto Municipal, Ramón Ruiz de Mendoza, emite informe favorable a la concesión de la licencia de primera utilización. En el citado informe, establece que la base imponible, a efectos de aplicación del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras; asciende a la cantidad de **133.779,10 €**.

Así mismo, en el informe se determina que se deberá adjuntar el impreso de “Estadística de Edificación y Vivienda” debidamente cumplimentado, en función de lo establecido en la Ley 4/86 de Estadística de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Vista la propuesta de acuerdo del Concejal Delegado de Urbanismo y la conformidad dada por el Asesor Jurídico de Urbanismo a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, a propuesta del Delegado de Urbanismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad

**RESUELVE**

**PRIMERO**. **Conceder a RICARDO JIMENO DOMINGUEZ, *licencia de primera utilización para edificación nueva*** en SAGARDIBURU KALEA 71, (SECTOR 61), según documentación final de obras aportada y que se hace constar en la parte expositiva.

**SEGUNDO. Se abonarán** los correspondientes derechos municipales sobre la base de **133.779,10 €** (Base imponible anterior 121.668,00).

ESKU2317015c-1795-43cc-8264-febd6765d8a9

eurotakoa izan zen).

**3. Proposamena: Udal Informazioaren Segurtasun Politika dokumentuaren errebisioaren onespena. (2022ZBAR0010)**

Administrazio elektronikoaren baitan Segurtasun Eskema Nazionala (aurrerantzean SEN) arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren helburua da konfiantza sortzea ulertzeko informazio-sistemek zerbitzu emango dutela eta informazioa kudeatuko dutela zehaztapen funtzionalen arabera, etenik edo kontrolik gabeko aldaketarik gabe eta bermatuta informazioa ez dela iritsiko baimenik ez duten pertsonengana.

Errenteriako Udalak, administrazio publiko den aldetik, Administrazio Elektronikoaren baitan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren 12.2 artikuluaren arabera, betebehar hau du: “Cada administración pública contará con una política de seguridad formalmente aprobada por el órgano competente”.

Errenteriako Udalaren Informazio Segurtasuneko Batzordeak, S21sec enpresaren aholkularitzarekin, Informazioaren Segurtasun Politikari buruzko dokumentu bat prestatu du, eta dokumentu horrek, era berean, 8 eranskin ditu.

Informazioaren Segurtasun Politika, Errenteriako Udalak informazio eta komunikazio-sistemak erabilita bere helburuak lortzeko baliatzen duen tresna da. Segurtasunak, prozesu integral gisa hartuta, bere baitan hartzen ditu informazio eta komunikazio-sistemen inguruko teknika, giza baliabide, materialak eta antolamenduko elementu guztiak, eta ulertu behar da ez produktu gisa, egokitzapeneko eta

**3. Propuesta: Aprobar la revisión del documento de Política de Seguridad de la Información del ayuntamiento.(2022ZBAR0010)**

El Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad (en adelante ENS) en el ámbito de la Administración electrónica, tiene por objeto generar confianza para entender que los sistemas de información prestarán servicio y gestionarán la información según especificaciones funcionales, sin interrupciones o cambios incontrolados y garantizando que la información no llegue a personas no autorizadas.

El Ayuntamiento de Errenteria, como Administración Pública, de acuerdo con el artículo 12.2 del Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica, tiene la siguiente obligación: “Cada administración pública contará con una política de seguridad formalmente aprobada por el órgano competente”.

La Política de Seguridad de la Información del Ayuntamiento de Errenteria identifica responsabilidades y define los principios y directrices para una adecuada y continuada protección de los servicios y activos gestionados a través de las Tecnologías de la Información y la Comunicación (TIC).

La Política de Seguridad de la Información es el instrumento a través del cual el Ayuntamiento de Errenteria logra sus objetivos a través de los sistemas de comunicación e información. La seguridad, entendida como un proceso integral, incluye todas las técnicas, recursos humanos, materiales y elementos organizativos relativos a los sistemas de información y comunicación, y debe

ESKU2317015c-1795-43cc-8264-febd6765d8a9

hobekuntzako etengabeko prozesu gisa baizik, kontrolatu, kudeatu eta monitorizatu behar dena, Errenteriako Udalean segurtasunaren kultura ezarrita.

entenderse no como un producto, sino como un proceso continuo de adecuación y mejora que debe ser controlado, gestionado y monitorizado mediante la implantación de una cultura de seguridad en el Ayuntamiento de Errenteria.

Udal Informazioaren Segurtasun Politikaren Dokumentuak informazioa eta komunikazio tresnen kudeaketan SEN arauak eta izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko indarrean dagoen legeriak ezarritakoa betetzeko, Errenteriako Udalaren enplegatuek esparru horretan bete beharreko arauak jasotzen ditu.

En cumplimiento de lo establecido en la norma ENS y en la legislación vigente sobre protección de datos de carácter personal en la gestión de los instrumentos de información y comunicación, el documento de Política de Seguridad de la Información municipal recoge las normas que deben cumplir los y las trabajadoras del Ayuntamiento de Errentería en este ámbito.

Besteak beste, dokumentu honekin datuak babesteko esparruan derrigorrezko informazioaren segurtasun dokumentua eguneratzen da, hala nola eranskin gisa doan RAT (Registro de actividades de tratamiento) delakoa jasotzen du. Izan ere RGPD-ren 30. artikuluak erregistro hau sortu behar duela adierazten du.

Además, con este documento se actualiza el documento de seguridad de la información obligatoria en el ámbito de la protección de datos, así como el RAT (Registro de actividades de tratamiento) que se adjunta como anexo. De hecho, el artículo 30 RGPD señala que se debe crear este registro.

Udalak 2016ko irailak 21ean onartu zuen lehen aldiz Informazioaren Segurtasun Politikaren dokumentua. Ondoren dokumentua berrikusi zen eta TGBak 2020ko azaroak 3an onartu zuen (2020XPOL0003).

El Ayuntamiento aprobó por primera vez el documento de Política de Seguridad de la Información el 21 de septiembre de 2016. Posteriormente se revisó el documento y la Junta de Gobierno Local lo aprobó el 3 de noviembre de 2020 (2020XPOL0003).

Orain berriro egin da dokumentuaren berrikusketa.

Ahora se ha vuelto a realizar la revisión del documento.

Errenteriako Udaleko Informazioaren Segurtasun Politikaren Batzordeak 2022ko maiatzaren 12an egindako bileran aldeko irizpena eman dio Informazioaren Segurtasun Dokumentuaren berrikusketari eta horren 2 eranskinak onartzeari.

El Comité de Seguridad del Ayuntamiento de Errenteria, en su reunión de 12 de mayo de 2022, ha informado favorablemente la revisión y aprobación del documento de Política de Seguridad de la Información y sus 2 Anexos.

Dokumentuaren 2 eranskinak hauek dira:

Los 2 anexos del documento son:

I. Eranskina - Definizioak

Anexo I.- Definiciones

ESKU2317015c-1795-43cc-8264-febd6765d8a9

II. Eranskina - Udal tratamendu jardueren erregistroa (TJE/RAT-Registro de Tratamientos de Actividades).

2022ko ekainaren 21ean IKTko arduradun teknikoak gaiari buruzko aldeko txostena eman du.

## ZUZENBIDE OINARRIAK

- 2016/679 Erregelamendua (EB), apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babestekoa datu pertsonalen tratamenduaren inguruan eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa. Aurrerantzean Erregelamendua.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestu eta Eskubide Digitalen Bermeei buruzkoa.
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, non bertan onartzen den 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, garatzeko Arautegia.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Agentzia Sortzeari buruzkoa.
- 311/2022 Errege dekretua, maiatzaren 3koa, Seguridadeko Eskema Nazionala arautzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen ohiko prozedura administratiboari buruzkoa.

Informatikako delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Informazio gizarteko arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Informatikako delegatuaren proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez, honako hau,

Anexo II.- Registro de Tratamiento de Actividades municipal (TJE/RAT-Registro de Tratamientos de Actividades).

El 21 de junio de 2022 la responsable técnica de TIC ha emitido informe favorable al respecto.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Reglamento 2016/679 (UE), de 27 de abril, relativo a la protección de las personas físicas en materia de tratamiento de datos personales y a la libre circulación de esos datos. En adelante el Reglamento.
- Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y Garantías de Derechos Digitales.
- Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.
- 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia de Protección de Datos.
- Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad.
- 39/2015, de 1 de octubre, de procedimiento administrativo ordinario de las Administraciones Públicas.

A la vista de la propuesta de acuerdo del delegado de Informática, y con la conformidad dada a la misma por la responsable de Sociedad de la Información.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, a propuesta del Delegado de Informática, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad

ESKU2317015c-1795-43cc-8264-febd6765d8a9

**ERABAKI DU:**

1. Udal Informazioaren Segurtasun Politika Dokumentua eta bere 2 eranskinak onartzea. Espedientean jasoak daudenak.

2.- Dokumentu hau eta bere eranskinak onartu ondoren, bera aplikatu beharrekoa izango da Errenteriako Udalean, eta, horrez gain, Udalak aurretik onartutako dokumentu guztiak eraginik gabe geratuko dira, besteak beste, 2020ko azaroak 3an TGBak onartutakoa.

3.- Udal datu babesaren delegatuak, hau da udal seguritatearen batzordeak, udaleko erabiltzaileak informatu eta prestatuko ditu, udal Informazioaren Segurtasun Dokumentuan jasotakoak ezagutzera emanez.

4.- Errenteria Musikal udal erakunde autonomoari aplikagarria izango zaio Informazioaren Segurtasun Politikaren dokumentu hau, II. eranskina izan ezik, behin organismo autonomoaren gobernu organoek dokumentuari atxikitzeko erabakia hartu ondoren. Errenteria Musikalek bere TJE-Tratamendu Jardueren Erregistro propioa landu eta onartu beharko du.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2022ko uztailaren 05a

**ACUERDA:**

1.- Aprobar el documento de Política de Seguridad de la Información del ayuntamiento y sus 2 anexos que constan en el expediente.

2.- Una vez aprobado el presente documento y sus anexos, éste será de aplicación en el Ayuntamiento de Errenteria, y quedarán sin efecto todos los documentos previamente aprobados por el Ayuntamiento, entre los que se encuentra el aprobado por la Junta de Gobierno Local el 3 de noviembre de 2020.

3.- El delegado de protección de datos del Ayuntamiento, es decir, la comisión de seguridad municipal, informará y formará a las personas usuarias del Ayuntamiento y les dará a conocer los contenidos del documento de Poítica de Seguridad de la Información municipal.

4.- Al Organismo Autónomo Municipal Errenteria Musikal le será de aplicación el presente documento de Política de Seguridad de la Información, a excepción del anexo II, una vez que el órgano de gobierno del organismo autónomo adopte el correspondiente acuerdo de adhesión. Asimismo Errenteria Musikal deberá elaborar y aprobar su propio Registro de Tratamiento de Actividades (RAT).

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:30 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 05 de julio de 2022

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU2317015c-1795-43cc-8264-febd6765d8a9**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2022IGOB0011-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Nagusia
Data / Fecha: 2022/07/05 11:38:13